

argazkigintza > argi-ITZALAK

Irudimena lehengai

Estilo asko jorratu ditu Jose Juan Gurrutxaga donostiarrek 80ko hamarkadatik hona. Ustekabean zaletu zen, baina betiko.

IDOIA ETXEBERRIA

Ustekabean zaletu zen Jose Juan Gurrutxaga. «Lankide baten erruz». Hark bultzatuta, Gipuzkoako Argazkilari Elkartera joaten hasi zen. Eta ordutik ezin izan du argazkilaritza utzi. Kameraren atzetik begiratzen dio munduari: «Nire sentimenduak eta irrikak adierazteko bidea bilakatu zen».

Estilo eta gai askotako argazkiak egin ditu. «Denetik. Erreportaje argazkia oso gustuko izan dut beti, eta kiroletako argazkiak ere bai. Eta bidaiaren batera banoa, ezin naiz kamera gabe joan; zerbait falta zait, ez dut bete-betea gozatzen». Gurrutxagaren arabera, «kamerak gehiago begiratzera behartzen zaitu, begirada pixka bat bereziagoa izatera; besteek begiratzen ez duten lekura begiratzera». Hori bai, ez da kamera alde guztietara daramaten horietakoa. «Ahorrarazi egiten nau lanerako bidean... 'ai, ze argi zoragarria, eta ni kamera gabe!'. Baina ezin zara kamera bizkarretik zintzilik duzula ibili egunero, bizitza normala eragozten dizulako. Erotzekoa litzateke. Zaletasun ordez, obsesio bihurtuko litzateke!», dio barrez.

Argazkiekin DVD musikatua atontzea ere gustuko du. «Bartzelonarekin bat egin nuen, eta orain Lisboarekin nabil. Eta irudien arabera, erakusketa ere egingo dut, baina denborarekin. Azken finean, argazkilaritza denbora da!». Argazkilari guztiek bezalaxe, be-

rak ere momentua harrapatzeko grina du: «Hunkitu gaituen, gustatu zaigun une hori. Denboraren ehiza da pixka bat, errepikatuko ez den une hori atzematea. Gurea ez den zerbait geure egiteko nahia». Gurrutxaga ez da, baina, argazkiak berarentzat soilik gorde zalea: «Interesagarria da ezagutzen ez duzun ikusle bati ere emozioa sorraraztea. Zerbait esan diezaiola. Zer? Ikuslearen arabera izango da hori. Ezinezkoa da denok berdin sentitzea».

Argazkilaritzari esker «jende zoragarri mordo» ezagutu duela dio, eta haiekin zernahiri buruz hizketan egoten dela gustura. «Elkartean bertan eta kanpoan ere bai, epaimahaikide izatea egokitu zaidan tokietan eta». Elkarteak une honetan haren «bigarren etxea» da. «Ia egunero joaten naiz; Trofeo Gipuzkoa lehiaketa antolatzeke ardura dut, eta beti bueltaka nabil». Elkarteko hainbat jardueratan parte hartzen du.

1982an erosi zuen lehen reflex kamera, argazkilaritza apur bat «menperatzen» hasi zenean. Gela ilunean ibiltzen zen orduan, zuri-beltzeko argazkiekin: «Ia denok

■ nortasun agiria

- **Izena:** Jose Juan Gurrutxaga.
- **Jaio:** Donostian, 1958.
- **Ogibidea:** Banketxe bateko administraria da.
- **Argazkilaritza:** 80ko hamarkadaren hasieran hasi zen. Lagun batek bultzatuta, Gipuzkoako Argazkilari Elkarterean eman zuen izena. Eta gaur arte. Gipuzkoa Trofeo nazioarteko lehiaketaren antolatzaleetako bat da une honetan.
- **Lehiaketak eta erakusketak:** Makina bat sari irabazi du, hemengo zein nazioarteko lehiaketetan. Aipagarrietako bat, Aqueducte Saria, 1996an. Erakusketak ere egin ditu; kiroletako argazkiekin, esaterako.
- **www.federacionfotovasca.org**



egin dugu antzeko bidea: laborategitik ordenagailura». Prozesu digitalak denbora hobeto baliatzeko aukera ematen duela dio, eta irudiaren gaineko erabateko kontrola. «Bakoitza irudimenak esaten dion tokiraino iritsiko da». Hori bai, analogikoarekin ere ideia onekin emaitza onak izaten zirela dio: «Irudimena da lehengai. Tratamendua tresna bat besterik ez da». Digitalari ikusten dion alde txarra, berriz, «behata oso azkar doala! Eta oso zaila da benetan balio duten argazkiak apartatzea, lan izugarria. Oso irizpide argiak izan behar dituzu».

Argazkilaritzaz gainera, kirola, musika, irakurtzea, artea eta zinema gustatzen zaizkio.



Marinel zaharra.



Praga. Polaroid marraztua (1995).



Semaforoa.



Skater.



Errugbia.



Dantza ikastaroa.